



# Aretxaga

## etxebizitza

Aldarak:

Ahozkoa: Aátxa / Átxa / Aátxaga

*“... la casería de Arechaga y sus pertenecidos radicante en jurisdicción de la Anteglesia de Berriz... se compone de un área de setenta y nueve estados equivalentes a trescientos un metros, tiene piso bajo, primera habitación y camarote... zaguan y plazuela...”*

*DJE, 4/ 23. or. (1878)*



43° 11' 25"

2° 34' 39"

Berriz Iuditan / J.A. Ramos

Besoita aldetik Andikoara doan bideari jarraituta aurkitzen dugu XVII. mendeko *Arechaga* (1685, BAHP, A962/32. or.) baserria. XVIII. mendeko Bizkaiko su-erroldeetan forma bera mantentzen du, *Arechaga* (1704), hain zuzen ere, eta orokorrean aldaketarik gabe mantendu da: *Arechaga* (1825, PE/1825) eta *Arechaga* (1910, BUA, RU). Auzotarren artean, *Aátxa*, *Átxa* edo *Aátxaga* dira formarik erabilienak.

Baserri-etxe ederra da, 1800 inguruko baserrien tankeran jaso. Egun simetrikoa ez bada, aldamenean erantsia daukan gorputzagatik da, beranduago jaso zena atearen egurrezko dinte-

lak ondo islatzen duen moduan. Etxe originala sarrerako atarteko arkuaren arabera ordenatuta zegoen. Beheko solairuan, haren aldeetan, leiho bana dauka.

Bestalde, lehenengo solairuan lau leiho ditu, behekoekin lerrotatuta, eta arkuaren gaineko biak. Ganbaran, beste bi leiho dauzka. Harri ona erabili zuten eraikuntzan, nahiz eta harlangaitzezkoak izan hormak. Barrenean, etxe zaharragoaren silarriak ikus daitezke oraindik. Kantalak, arkuak eta leiho guztiak harlanduzkoak dira. Bi isurkiko teilatua dauka.

## toponimia

Bizkaian eta Araban oso arrunta da toponimoetan aretx agertzea, baina hitz honek lehen ez omen zuen egun duen esan-gura. Badirudi antzina aretx ez zela “haritza” *Quercus robur*, edozein “zuhaitz” baizik. Dena dela, nolako zuhaitza izan behar zen orain dela bostehun urte baino gehiago adierazgarria izateko.